

Garapen Iraunkorra



Proiektuaz

PARTE-HARTZAILEAK

D.A.D Kutxa
Jubikutxa
Kutxa Fundazioa

HELBURUA

Munduko
desberdintasune
n aurka
elkartasuna eta
borroka

Baliabideak:

% 50 ekarpen
pertsonalak

50% Kutxa
Fundazioa

DESTINOA

Garapen
Iraunkorreko
Proiektuak

HARREMANAK

Rosana Rodríguez
dadKutxa@kutxabank.es

Garapenerako Lankidetza Batzordea

Testuingurua

Kutxabank elkarrekiko konfiantza, taldekide izatearen zentzu eta bizi-kalitatearen balioetan oinarritzen da, Kutxak aurrezki-kutxa gisa historikoki sustatu zituen balio berberetan

1993an, Kutxako langileek “Hirugarren Munduari Laguntzeko Batzordea” sortu zuten, sentikortuta baitzeuden pobreziaren aurka borrokatzeko % 0,7 ekarpena eskatzen zuten gizarte-mugimenduekiko. Batzorde hau Denon Artean Denetik (DAD) enplegatuen elkartearen barruan sortu zen.

Ekarpen honi esker, garapenerako lankidetza-proiektuak bultzatu dira 25 urte baino gehiagoz herrialde askotan: Tibet, India, Kolonia, Bolivia, Togo, Mozambique eta abarretan. Adibidez, eskolak, neskailentzako etxeak, elikadura osasungarria, medikuntza tradizionala, bidezko kontsumoa, ahalduntze komunitarioa, oinarritzko azpiegituren eraikuntza, etab.

Proiektuak gauzatzen diren tokietan ospea duten eta ondo erroturik dauden elkarrekin zuzenean lan egiten dugu, eta horrek premia benetan garrantzitsuei erantzuteko gaitasun handiagoa ematen du. Gainera, proiektuen eragin biderkatzailea handiagoa izaten da.

D.A.D. ekintza Jose Manuel Goenaga, D.A.D

Nola mantendu da bizirik ekintza hau 25 urtez?

Funtsezko hiru faktore daude, zalantzarik gabe: proiektuak, ekarpenak eta hori kudeatzera beren denbora ematen duten pertsonak.

Nola lortzen da beharrezko finantzaketa?

Askok egiten dituzte ekarpenak iraunkortasunez, edo soldataren % 0,7 nominan emanez, edo hileroko, hiruhileroko edo urteroko aginduen bidez. Edo noizean behin.

Ekarpenek dohaintza-izaera dute, eta, beraz, desgrabatu egin litezke errentaren aitorpenean.

Bestalde, eta ekarpenei dagokienez, Kutxa Fundazioak (garai batean, Kutxak) berdindu egiten du urtean zehar lorturiko kopurua, eta horrela bikoiztu egiten da aurrekontua.

Nola kudeatzen dira laguntza hauek?

25 urteotan hainbat etapa bizi izan ditugu. Juan Carlos Furundarena izan zen alma materra, bera arduratzen zen dirua lortzeko ekimenak abian jartzeaz eta laguntzeko proiektuak identifikatzeaz.

Azken urteotan, kudeaketa guztia Kutxa Fundaziotik egin izan da, eta 2018 honetan protagonismoa berriro ere lagundu nahi duten enplegatuena da. Oinarria D.A.D Kutxa eta Jubikutxa dira. Beraz, aurtendik aurrera, abiapuntuko ekimena berreskuratu nahi da eta bere buru direnei itzuliko zaie protagonismoa, langileei alegia, prozesua beraien irizpidearen arabera gara dadin.

Parte hartzeko, elkarrekin D.A.D Kutxako langile eta bazkideetakoren baten abala izan beharko dute, eta hauek aurkeztuko diote proiektua trakzio-taldeari.

Trakzio-talde berria sortu nahi dugu, eta hau arduratuko da lankidetzarako laguntzen deialdia egiteaz, proiektuak aukeratzeaz eta gainerako lankideen artean ekimena zabaltzeaz. Trakzio-talde honen koordinazioan erreleboa Rosana Rodríguez-ek hartu du.

Testuingurua

1993an D.A.D.
Kutxaren barruan
sorturiko proiektu
honen beste etapa
bat hasiko da.

Pertsona bakoitza
dago parte hartzera
gonbidatuta
lankidetzak
proiektuak
proposatu eta
bultzatuz; garapen
iraunkorrera
bideratuta egon
behar dute,
sustatzen dituzten
elkarrekin eskutik.

“Jende txiki askok,
leku txikietan,
gauza txikiak
eginez, mundua
alda dezake”
(Eduardo Galeano)



“Garrantzitsua da Kutxako langileen artean hain erroturik dagoen proiektu batean laguntzea”

“Kudeaketa digitalizatu egingo da, eta areagitu prozesuaren gardentasuna”

“Jasotzen dugunaz irabazten dugu bizibidea, baina ematen dugunaz egiten dugu bizitza”
(John Maxwell)



Laguntza eta bultzada Itziar Igartua, Kutxa Fundazioa

Zergatik zuen inplikazioa ekintza honetan?

Garrantzitsua iruditzen zaigu guztion ongizatean gizartea inplikatzeko. Eta horretarako, zer hoberik Kutxako enplegatuen artean hain erroturik dagoen proiektu batean laguntzea baino? Gainera, zuzentasun eta berdintasun handiagoko mundua eraikitzeke beraiei konpromiso pertsonalean eragiten du.

Nola laguntzen duzue?

Dirua emanez, eta Kutxa Fundazioak berdindu egiten du Kutxako langileok bildutako kopurua. Baita Solidaritate Saisetik ere; batetik, urte hauetan ekintzaren kudeaketa orokorra geure gain hartu dugu, dagozkion Ogasuneko ziurtagiriak egitea barne. Eta bestetik, hemendik aurrera, bere zerbitzura jarriko dugu gipuzkoasolidarioa.info plataforma: kudeaketa digitalizatu, proiektuen jarraipena egitea erraztu, prozesuaren gardentasuna areagotu eta parte hartzen duten GKEen konpromisoa bultzatuko da.

Zein izan da iazko ekarpenen kopurua?

2017an ekarpen bidez 94.000 € bildu ziren. Eta kopuru hori bikoiztu egin zen Kutxa Fundazioaren ekarpenari esker.

Zer nolako proiektuak bultzatu dira 2017an?

Hainbat izan dira: osasuna eta hazkuntza-ohitura osasungarriak Mozambiken, estolderiak eraikitzea El Salvadorren, etxetxoak Ruandan, neskatiletzako egoitzak eta prestakuntza Indian, eskolak Ugandan, eta abar eta abar.

Zein izan dira eskaturiko baldintzak?

Oinarrizkoak hauek dira: nortasun juridikoa duen erakundea izatea, esperientzia sendoarekin sektorean, Kutxabankek bazkide izatea, egoitza Gipuzkoan, eta eragiteko lekuan frogatzeko moduko sustraiak dituzten elkarteekin lan egitea.

Zenbat proiektu hautatu edo aukeratu dira?

Urteetan zehar hautatuak dozenaka batzuk izan dira. Betiere ONUk garapen iraunkorrerako markaturiko helburuekin bat datozenak.

Etaparen berria, erronka berriak Rosana Rodríguez, DAD

Zein da erronka nagusia etapa berri honetan?

Ba, tira, enplegatuen parte-hartzea gehitzea, zalantzarik gabe. Ez bakarrik ekonomiaren aldetik, baita proiektuetara dirua esleitu behar denean inplika daitezkeen ere. Helburu horrekin ezarri da proiektu guztiek D.A.D.eko bazkide batek abalaturik etorri behar dutela. Normalki, garapen-proiektuetan laguntzeko orduan, bi arazo izaten dira: urruntasuna eta “zalantza” gure ekarpenaren norakoaz eta zertarakoaz. Orain aukera dugu euro bakoitza benetan dagokion lekuan jartzeko eta laguntza horren emaitza ikusi ahal izateko. Ez dago aitzakiarik 😊.

Nola egin daiteke ekarpena?

Bada kontu bat prest ekarpena bertara transferitzeko, Kutxa Fundazioaren kontu bat da, DADetik kudeatzen duguna. Zenbakia honako hau da: 2095 06 1109 1061635529.

Noiz izango da hurrengo deialdia?

Aurtengo azken hiruhilekoan hasiko litzatekeen dinamika bat ezarri nahi dugu. Funtsean, urrian proiektuak aurkeztuko lirateke, azaroan aukeratu eta abenduan argitara emango lirateke proiektuak eta bildutako ekarpenak.

Proiektua bukatzean, elkarteak bere emaitzari buruzko argibideak bidaliko lizkiguke, ezagutu eta partekatzeko.

Nola aurkezten dira proiektuak?

Beti D.A.D Kutxako bazkide baten bidez.

Nola aukeratuko da proiektuei emango zaien diru-kopurua?

Proiektuak eta beraiei diru-kopuruak aukeratzeko oinarriak ezartzeko lanean ari gara.

Nola lagundu daiteke ekimenaren kudeaketan?

Norbaitek hurbilagotik bizi nahi badu ekintza hau, jar dadila harremanetan nirekin helbide honetan: DADKutxa@kutxabank.es. Proposamenak aztertzen eta laguntzak esleitzen parte hartu ahal izango du. Esku guztiak ongi etorriak izango dira. Etapa berri bat hasi dugu, eta gure zeregina da ekintza polit honi eustea, dagoeneko 25 urte daramatza-eta martxan.

“Proiektuek D.A.D. Kutxako bazkide batek abalaturik etorri behar dute”

“Aukera dugu euro bakoitza dagokion lekuan jartzeko. Ez dago aitzakiarik!”

“Hurrengo deialdia urrian izango da.”

“Geure ekarpenen emaitza ezagutuko dugu.”